

## GURE AITA SANTU MAITE LEON XIII-GARRENARI. BERE URREZKO EZTAYETAN.<sup>1</sup>

Orruaz egon bedi  
Nai badu infernuba,  
Ez du oñperatuko  
Gure Aita Santuba.  
Arros oraziyuan  
Du gordelekuba,  
Birjiña Amak dauka  
Bere gaiñ artuba.

INSAUSTI-KO BONOSO-K.

Donostiyan.

## ERREGUBA.

Anchiñako erromatarrak agertu ziranian gure euskal-mendiyen ingurubetan, emeko orduko gizonen bular indartsu eta biyotz senduegaz topaurik, biurtu ziran atzera euren lauetarutz, ondo sinistuta gure ton-tor oneek eziñ zitubela oñzperatu.

¡Baña! Areek ziran erromatar jentillak, eta *jente illak* edo siniskera charrekuak, ez eban orduan izan eta ez dabe iñoiz izango Euskal-errian laguntasunik.

Gaurko Erromak, gure Aita Santu Leon Amairugarrenaren Erromak, Erroma kristinaubak, beregaz daukaz eta bereak ditu gure mendi, gure zelai, gure ibar, gure biyotz eta gure izaera guztiyak.

Erroma onek bezela, gure lur maitiak bere negar egiten dau.

¡Jauna! Bedeinkatu bediz gure negarrak eta zuzendu bediz gure oraziñoiak, Bedorren Erri Santu orrek eta gure Euskal-erri laztanak urten deyen, ainbe lasterren, au egoera larri eta errukigarritzotik.

KAPELASTEGI-KO LEON-EK.

Elorriyon, 1885-garren urteko Orrillaren 23-an.

(1) V. nota de la pág. 1.